# UDALEKU HEZIKIDE TZAILEAK

# ACTIVIDADES DE VERANO COEDUCATIVAS



# UDALEKUHEZIKIDETZAILEAK
## DENA PREST IZATEKO ERREZETAK

**Haur eta nerabeekin aurrera eramaten diren udako egonaldiak nolakoak diren gure buruei galdetzeko tresna da hau. Egiten dugun lanaren garrantzia azpimarratu eta astialdian ematen den jardunean jarri nahi da begirada: nola egiten da lan hau? Zeintzuk dira taldearen erronkak? Nola ekin diezaiokegu gai hau lantzeari?**

**Hezkidetza aisialdian nola ematen den landu ostean taldeak eskuragarri izateko zenbait gako eta proposamen aurkezten ditugu jarraian EGKtik (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua).**

# ACTIVIDADES DE VERANO COEDUCATIVAS
## RECETAS PARA TENERLO TODO PREPARADO

**Esta es una herramienta para preguntarnos cómo son las estancias de verano que se llevan a cabo con los y las niñas y las personas adolescentes. Se trata de poner la mirada en la importancia del trabajo que realizamos, desde dónde lo hacemos y en la actividad que se da en el tiempo libre educativo: ¿Cuáles son los retos?  ¿Cómo se puede comenzar a hacer este trabajo?**

**Desde EGK (Consejo de la Juventud de Euskadi) se presentan a continuación una serie de claves y propuestas para el acceso de los grupos tras el trabajo de la coeducación en el tiempo libre educativo.**

## TALDEAK BA AL DU PROTOKOLO EDO PLANIK?

Sarritan, material teorikoak astunak izaten dira, eta zer esanik ez, plan eta protokoloak. Berdintasuneko begirada ahalik eta txertatuen egoteko ordea komenigarria da kontu hauei aurrez eustea teorikoki eta praktikoki, batez ere dauden premia eta erronkei erreparatzeko.

Planek udalekuetan berdintasuna nola txertatu daitekeen diseinatzen lagun diezaguke. Hau da, adibidez, erabiltzen ditugun espazioetan, materialetan eta ekintzetan zein irizpiderik lan egiten dugun pentsatzen lagundu diezaguke.

Bestalde, protokoloek, udalekuen esparruan egon daitezkeen eraso desberdinen aurrean nola jokatu jakiteko bide-orri bat izaten lagunduko digute. Honek kasu desberdinei erreparatuko die: bai nerabeen artean ematen diren erasoen aurrean zer egin dezakegun, bai hezitzaileen artean ematen diren erasoak nola kudeatu edota hezitzaileek nerabeenganako izan ditzaketen erasoen aurrean nola jokatu erabakitzeko.



## ¿TIENE EL GRUPO ALGÚN PROTOCOLO O PLAN?

A menudo, los materiales teóricos nos resultan densos, y ni qué decir, los planes y protocolos. Pero para que la mirada de igualdad esté lo más integrada posible, es conveniente que estas cuestiones se lleven a cabo de forma teórica y práctica, sobre todo para atender las necesidades y retos existentes en el ámbito concreto.

Los planes nos pueden ayudar a diseñar cómo se puede incorporar la igualdad en las diferentes actividades de tiempo libre educativo, en concreto en verano. Esto, nos puede ser útil, por ejemplo, a pensar en los criterios bajo los que trabajamos en los diferentes espacios, materiales y acciones que utilizamos.

Por otro lado, los protocolos nos ayudarán a disponer de una hoja de ruta sobre cómo actuar ante las diferentes agresiones que pueda haber en el ámbito del tiempo libre educativo en verano. Esta hoja de ruta, se centrará en los diferentes casos: qué podemos hacer ante las agresiones que se dan entre los y las adolescentes, cómo gestionar las agresiones que se dan entre las personas educadoras y cómo actuar ante las posibles agresiones de las personas educadoras hacia los y las adolescentes.

## TALDEAK BA AL DU HEZKIDETZAZ ARDURATUKO DEN NORBAIT?

Hezkidetza arduradunaren figura sortzea interesgarria izan daiteke taldeak ohiko jarduna aurrera daraman bitartean behaketa, jarraipena eta balorazioa egin dezan.

Arduradun profil bat ezartzeak ez ditu gainerako profesional, gazte edo beste langileak lan honetatik kanpo uzten, baina honek jarraipenean pisu handiagoa hartuko du. Ardura kolektiboa izango da baina agian gomendagarria litzateke hezkidetzaren erreferentea izango den pertsona bat izatea, batez ere behaketa eta ebaluazio irizpideak buruan dituena. Gainera, ezinbestekoa da lan kolektibo bat den heinean pertsona honek ikusitakoa eta aldatu beharrekoa gainontzekoekin konpartitzeko espazioak izatea.

## ¿TIENE EL GRUPO, PERSONAS RESPONSABLES QUE SE ENCARGUEN DE LA COEDUCACIÓN?

La creación de la figura de la persona responsable de la coeducación puede ser interesante para que el grupo realice observación, seguimiento y valoración durante el desarrollo de su actividad habitual.

La creación de un perfil de responsable no excluye al resto de profesionales, personas jóvenes u otras trabajadoras de ámbito o espacio. Será una responsabilidad colectiva pero quizá sería recomendable que una persona concreta fuera la referente de la coeducación.
Además, es imprescindible que como trabajo colectivo, esta persona tenga espacios para compartir lo que ha visto y lo que hay que cambiar para realizar de una mejor manera las actividades en el futuro.

## TALDEAK ERABILTZEN DUEN MATERIALA HEZKIDETZAILEA DA?

Erabiltzen dugun materialean emakumeen presentzia ageri da? Erabiltzen ditugun euskarriak al dira sexistak? Musika, abestiak, ipuinak, kartelak...

Baloien erabilera mugatuko dugu eta beste mota askotako materialak erabiltzen saiatzen gara? Kontuan izanda, batez ere baloien bidez mutilek espazioen zentralitatea hartzen dutela (bururatzen zaizkigun eta taldeak erabiltzen dituen beste euskarri batzuk ere baloratu daitezke).

## ¿EL MATERIAL UTILIZADO POR EL GRUPO ES COEDUCATIVO?

En el material que utilizamos, ¿hay presencia de mujeres? Los soportes que se utilizan ¿están libres de sexismo? Música, canciones, cuentos, carteles...

¿Limitamos el uso de balones y hacemos uso de otro tipo de material? Teniendo en cuenta que, sobre todo a través de los balones, son los chicos quienes adquieren el centro de los diversos espacios. (Se pueden valorar otros soportes que se nos ocurran a partir de estos y que utilice el grupo).

## TALDEAK ESPAZIOAREN ERABILERA PAREKATUA EGITEN AL DU? BULTZATZEN AL DA HAU EMATEA? NOLA?

Neskek eta mutilek espazioa ezberdin hartzen eta erabiltzen dute. Hausnarketa hori egin al dugu? Zein espazio partekatzen dute eta nola? Zer egin dezakegu hori birformulatzeko? Genero rolak erreproduzitzen dira jada sortuta ditugun espazio horietan?

## ¿HACE EL GRUPO UN USO EQUITATIVO DEL ESPACIO? ¿SE IMPULSA QUE ESTO SE DÉ? ¿CÓMO?

Las chicas y los chicos toman y utilizan el espacio de forma diferente. ¿Hemos realizado esa reflexión? ¿Qué espacios se comparten y cómo? ¿Qué hacemos para reformular las diferencias? ¿Se reproducen los roles de género establecidos en los espacios que ya tenemos creados? Valorar los siguientes y diferentes ejemplos:

- Limitar los deportes como el fútbol o el baloncesto en el tiempo libre educativo.
- Impulsar juegos relacionados con el cuidado.
- Observar las diferentes actividades como excursiones / salidas.
- Cuando organizamos juegos dentro de disciplinas como el teatro, evaluar estas y las situaciones que se dan en la actividad.
- Cuando se realizan pernocta, fiestas u otras actividades de tiempo libre, prepararlas previamente.

- Denbora librean futbola edota saskibaloia bezelako kirolak mugatu.
- Zaintza lanekin zerikusia duten jolasak sustatu.
- Txangoak / irteerak dituzten ekintza desberdinak behatu.
- Antzerkia bezalako disziplinen baitako jolasak antolatzen ditugunean, ematen diren egoerak ebaluatu.
- Gaubela, diskofesta edo bestelako denbora libreko ekintzak nola egingo diren aurretik pentsatu.

## TALDEAK BA AL DU HEZKIDETZA EBALUATZEKO MODURIK?

Udalekuetan, eguna nola joan den ebaluatzen saiatzen gara gauero kasu askotan eta beste zenbait kasutan astea igaro ondoren egiten da balorazio hau.

Nerabeak nola sentitu diren, zer egin duten... ematen al diogu espazio hauetan tarterik emozioen lanketari edo berdintasunari adibidez?
Zertaz hitz egiten dugun espazio horietan, modu kontzientean ematen da, hau da, aurrez prestatuta?

Ondo legoke, ebaluatzeko tartea hartzen dugun une horietan berdintasunean fokua jartzea eta orain arte aipaturiko puntuak nola betetzen ditugun ebaluatzea: genero rolak, estereotipoak, emozioak, sentimenduak... Horretarako, beharrezkoa izango da espazio seguru eta erosoa sortzea eta partekatzea.

## ¿PUEDE EL GRUPO EVALUAR LA COEDUCACIÓN?

En las actividades de verano y en general de tiempo libre educativo, se intenta hacer una evaluación continua de las actividades ¿Solemos valorar las siguientes cuestiones?

¿Cómo se han sentido las y los adolescentes, qué han hecho en estos espacios, por ejemplo, al trabajar las emociones o la igualdad?
¿De qué hablamos en esos espacios? ¿Lo hacemos conscientemente? Es decir, ¿lo preparamos previamente?

Estaría bien que, en los momentos en los que se toma un tiempo para evaluar las actividades y situaciones, se pusiera el foco en la igualdad y se evaluara, sobre todo, de qué manera se llevan a cabo los puntos mencionados hasta ahora relacionados con la coeducación: roles de género, estereotipos, emociones, sentimientos... Para todo ello es necesario crear y compartir un espacio seguro y cómodo.



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

diru-laguntzaileak / con la colaboración de

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EMAKUNDE
EMAKUNDEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala